


KUDEAKETA-POLITIKA

BARAKALDO Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak, bere politikaren eta estrategiaren funtsezko zati gisa, langileen eta erabiltzaileen kalitatearen, ingurumenaren eta segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa integrala definitu ditu. Era berean, erakundearen kudeaketarako erreferentzia-eredutzat nazioartean onartutako erreferentziazko arau eta zehaztapenetan oinarritutako kudeaketa-sistemak hartu ditu. Gida gisa hartu diren erreferenteak **UNE-EN ISO 9.001, UNE-EN ISO 14.001, UNE- ISO 50.001 Arauak eta OHSAS 18.001 zehaztapenak izan dira, indarrean dauden bertsioetan.**

Zehatzago esanda, gure Ikastetxeak, kudeaketa, "GURE PRINTZPIOAK" atalean (Misioa, Ikuspegia eta Balioak) identifikatzen den jardun-filosofia gisa hartu du (2. or.)

Kudeaketarekiko konpromisoak erakunde osoari eragiten dio. Zentroko Zuzendaritzak hitz ematen du beharrezko politika aktibo guztiak garatuko dituela kutsaduraren prebentziorako eta langileen eta erabiltzaileen segurtasun eta osasun kalteak ekiditeko, energetikoki eraginkorrak diren produktu eta zerbitzuak erosten laguntzeko, eta planifikatutako helburu eta xedeak lortzeko behar diren informazioa eta baliabideak eskuragarri daudela ziurtatzeko.

Era berean, zentroko pertsona guztiek ezarritako baldintzak betetzeko konpromisoa eta erantzukizuna hartu behar dute, sistemaren jardunaren etengabeko hobekuntzan aktiboki parte hartzeko, kalitatearen, ingurumenaren, energia-efizientziaren eta langileen eta erabiltzaileen segurtasunaren eta osasunaren ikuspegitik. Horretarako, ikastetxeko zuzendaritzak, jarduera hauek garatzeko behar den prestakuntza-maila lortzeko baliabideak jarriko ditu, eta aplikagarriak diren legezko eta arauzko baldintzak betetzeko konpromisoa hartuko du, bai eta kudeaketa-sistemaren eraginkortasuna etengabe hobetzeko ere.

PREPARADO: MAE  DATA: 24/09/02	REVISADO: AUG  DATA: 24/09/02	APROBADO: GS (El presidente)  DATA: 24/09/02
---	--	---

MISIOA

Gure egitekoa, **etorkizuneko profesionalak prestatzea** da (gaitasun teknikoak, ahalegin-kultura eta trebetasun sozial eta pertsonalak), lan-eremuan sartzeari lor dezaten, mundua gizarte bidezkoago eta berdinzaleagoa egingo dutena.

Ilusioz lan egingo duen giza talde baten bidez, **egiteko modu berriak** bultzatuko dituen Ikastetxe publikoa.

IKUSPEGIA

Erakunde, enpresa, ikasle eta irakasleentzat, erreferentzia den abangoardiako Ikastetxea gara.

BALIOAK

Gure lana gidatzen duten balioak:

Konpromisoa

Ulertzeko eta egiteko modu berriak garatzen dituen erakunde adimentsua, lankidetzaproiektuak sustatzen eta balio anitzeko taldeak integratzen dituen, teknologia aurreratuekin lan egiten duena, errendimendu handiko prestakuntza, adimen aplikatua, berrikuntza estrategikoa eta pertsonen egiten jakitea sustatzen dituen, hori guztia ingurune digital eta iraunkor batean.

Errespetua

Pertsona guztien eskubide indibidual eta kolektiboak errespetatzea, generoan oinarritutako diskriminazioa eta estereotipoak gainditzeko bitarteko gisa, haien kultura, jatorria, generoa edo gaitasun fisikoa edo mentala edozein izanik ere.

Sormena

Metodologia, ikaskuntza-eredu eta prestakuntza-guneetan lan egiteko modu berriak jartzeari. Balioetan oinarritzen den berrikuntza hau oinarritzeko hiru elementu bateratuz sortzen da: teknologia, ezagutza eta lankidetzak.

Elkartasuna

Pertsonen beharretara egokitutako lanbide heziketa inklusiboa bermatzea, garapen pertsonal eta profesional egokia eta behar den lanbide-kualifikazioa lor dezaten. Aldi berean, gizarte-balioei eta garapen jasangarriari buruzko prestakuntza sustatzea, giza garapen jasangarrirantz aurrera egiteko, osasuna eta ongizate fisikoa eta psikikoa zainduz, pertsona guztien prestakuntza eta kalitatezko enplegu-aukerak sortuko dituen hazkunde jasangarria bermatzeko.

Kidetzak

Gure ikastetxean parte hartzen duten eragile guztiak gure erakundearekin identifika daitezkeen sustatzea, bertan, eroso, ongi etorriak eta/edo onartuak senti daitezkeen, kide izatearen sentimendua sustatze aldera.